

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, zenbait elementu behar ditugu, ahalik eta modu eraginkorrenean eta egokienean aurrera eramateko gure enpresa. Funtsezko elementu horiek baitira enpresa bati ahalbidetzen diotenean enpresa balio-proposamena ekintzan garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.



Baliabideen artean, talde desberdinetan sailkatzen dira baliabidearen arabera. Askoren artean, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak daude.

Enpresa bat aurrera eramateko funtsezko baliabideak aipatu ondoren, baliabide ukigarriak eta ukaezinak aipatu behar ditugu. Alde batetik, baliabide ukigarriak baliabide fisikoak bezala ezagutu ditzakegu: hardwarea, bulegoak, mobiliarioa, langilea... Bestalde, baliabide ukaezinak, baliabide ez fisikoak dira: langileen esperientzia, kontaktuak, kolaborazioak, abilezia, ezagutzak...

Baliabide fisikoei dagokionez, gure kasuan, bulegoak beharko ditugu gure proiektua kudeatzeko, prestatzeko eta jarraipena egiteko. Bertatik kontrolatu eta eramango ditugu aurrera sortzen zaizkigun ideia berriak eta baita agertzen zaizkigun arazoak ere. Bestalde, sistema informatiko bat informazioa biltegitzeko eta prozesatzeko aukera ematen duen sistema bat da; elkarri lotutako zatien multzoa da: hardwarea eta softwarea. Hardwarea ordenadorearen zati fisikoa da, eta softwarea, aldiz, bertako programak. Azken hau, webgunea ahalbidetzeko beharrezkoa da, eta kontabilitatea eta nominak aurrera eramaten lagunduko digute bertako programek. Banaketa sareari esker lortuko dugu hau ere.

Baliabide intelektualak, gu geu gara, hau da, gure enpresako langileak gara baliabide intelektualak. Gure kasuan, etorkizunari begira ikuspegi zabala, motinazioa handia eta egoera desberdinetara egokitzeko gaitasuna dugu. IldoGure marka, gure enpresaren izena da "SixSense", eta logoa ere badaukagu izenari lotuta. Jabego ezagutza, oso funtsezkoa gure baliabideak zeintzuk diren jakiteko eta kudeatzen jakiteko. Pantentei dagokionez, pantentea guretzako gordeko dugu, ideia berritzailea iruidtzen zaigulako eta gure enpresan gertatzea nahi dugulako. Hortaz gain,

datua-baseak beharrezkoak dira gure proiektuaren parte diren bezeroen datu guztien jakinaren gainean egoteko.

Giza baliabideen arloan, langileak izan ohi dira aktiborik garrantzitsuenak eta. Bereziki zerbitzu-industrietako enpresentzat edo sormen handia eta ezagutza-ondare zabala behar dutenentzat, giza baliabideak oso garrantzitsuak dira. Alde batetik sormen handia edukitzea beharrezkoa da enpresa ideai berritzen joateko eta ideai berriak gehitzen joateko. Modu berean, ezagutza zabala edukitzeak jakintsuiagoak izatera eramango gaitu enpresa munduan, eta horrek, erreztasunez kudeatzera gure proiektua. Arlo honetan, gaitasun komertzialak aipamen handia du, beharrezkoa baita beste erakundeekin harreramanetan jartzeko, gure bezeroekin harremanetan jartzeko eta baita beste pertsoneri gure enpresaren berri emateko.

Lankide bakoitzaren postua :

Zuzendariak enpresaren kudeaketa orokorra eramango du aurrera. Taldean lan egiterako orduan antolaketa egoki bat oso garrantzitsua da, enpresako elementu guztiak modu ordenatu batean antolatu behar baitira. Helburuak zehazterakoan zuzendariak izango du ahots nagusia, beti ere besteekin hitz egiten erabakiak hartzerako orduan. Gehienbat zuzendaria gidari bat da.

Enpresako zuzendariak beharrezkoa du aholkulari bat. Erabakiak hartzerako unean aholkulariak bere ikuspuntua eskainiko du eta laguntza handia izango da erabaki gogorak hartzerako unean. Sormen zati bat ere gehitu beharko du aholkulariak. Legeen aurrean aholkulariak hartuko du kudeaketak aurrera eramateko ardura, baita lan esparruan ere.



Idazkariak mantenduko du beste enpresekin harremana nagusiki. Gure proiektua beste enpresekin eramango ditugun harremanetan oinarritzen da, horregatik garrantzitsua da idazkari bat. Alde batetik beste enpresekin negozioak egiteko harremanetan jarri beharko da, horrez gain idazkariak txukuntasuna, ordena, eta antolaketa bermatu eta mantendu beharko du. Informazioa eskuratzeaz eta taldekideekin partekatzeaz arduratu beharko da, idazkariak enpresaren kanpoko




harremanak eraman beharko ditu aurrera eta erabakiak hartzerakoan laguntza eskainiko du.

Finantza buruak eramango du kontu guztien kontrola. Diru sarrerak, gastuak... bere esku egongo dira. Enpresak inbertsio bat egin behar duenean berak egingo du antolamendua, eta zuzendariak berretsi beharko du. Enpresak galerak baldin baditu finantza buruak bilatu beharko du soluzioa, eta diru sarrerak handitu nahi badira berdin. Finantza buruaren lana enpresaren dirua egoki administratzea eta antolatzea da.

Azkenekoz, webgunearen kudeatzaileak, bezeroekiko harremanako egingo ditu. Bezeroei zerbitzu egoki bat eskaintzea bere esku egongo da, enpresagatik aurpegia emango du ere bezero batek kexa bat baldin badu eta soluzio bat bilatzen saiatu beharko da. Bezeroen nahiak eta beharrak aztertzea ere bere esku egongo da.

Webgunearekin zerikusia duten erabakiak berak hartuko ditu, zerbitzu egoki bat eskaintzea orokorrean bere ardura izango da. Bere lanen artean bezeroen beharrak asetzea dago, eta desadostasunen inguruan informazioa eskaintzea lankideei. Idazkariak enpresekin izango duen harremana berak bezeroekin mantendu beharko du.

Finantza-baliabidei dagokionez, guk lortuko dugun dirua enpresei publizitatea eginez eta harpidetza primaren bidez izango da. Eskuratutako diru hori gure proiektua zabaltzeko izango izango da. Diruarekin gure enpresa hobetu nahi dugu, web-gunea eta kudeaketa informatikoa garatzea eta eguneratua eraman ahal izateko informatikan adituak diren pertsonak kontratatuz.



Laburbilduz, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabiadeak eta fintzantza baliabideak behar



beharrezko dira. Hauetaz baliatuz gure proiektua gauzatuko dugu eta. Taldeari dagokionez, hasieran uste genuena baino orekatuagoa dela gure taldea antzeman dugu, eta honek taldea aurrera bultzatu duela nabarmen da.